

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINTZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2023-2024 denboraldia
(2023ko urriaren 2tik 2024ko irailaren 29ra)

12. astea (2024ko martxoaren 18tik 24ra)

Bai gripe-birusaren zirkulazioa, zein COVID-19aren intzidentzia, egonkor mantentzen dira. Bronkiolitisaren diagnostikoek pixka bat behera egin dute.


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 366,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (389,7/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasa egonkortu egin dela dirudi behin gailur epidemikoa igarota eta bronkiolitisarena ere egonkor mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 44 lagin jagoleen % 45,5 baieztatu da, SARS-CoV-2 bat, gripe-birus bat eta ABS bat (positibotasuna % 2,3) atzeman direlarik. 7 errinobirus eta 7 metapneumobirus ere detektatu dira.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 13,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (14,1/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 16 SARS-CoV-2, 14 gripe-birus eta 17 ABS erregistratu dira.

AIA Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 366,8 kasukoa izan da (389,7/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 308,4/100.000 izan da Araban, 386,5/100.000 Bizkaian eta 362,4/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 1737,6 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 537,4 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek behera egin dute adin-talde guztietan, 64 urtetik gorakoetan izan ezik.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ESI gehienetan aurreko astearekin alderatuta.


AIAREN INTZIDENTZIA-TASAK ETA TASEN ARRAZOA ESIAREN ETA ASTE EPIDEMIOLOGIKOAREN ARABERA. LEHEN MAILAKO ARRETAKO SAREA. 2023-2024, EAE

ESI	Tasa 12. astea	Tasa 11. astea	Tasen arrazoa (% 95 KT)
Arabako ESI	339,7	341,1	1,00 (0,91-1,08)
Arabar Errioxako ESI	451,6	664,6	0,68 (0,48-0,96)
Barakaldo-Sestaoko ESI	329,4	334,2	0,99 (0,86-1,13)
Barrualde-Galdakaoko ESI	420,5	442,9	0,95 (0,88-1,02)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	414,4	448,7	0,92 (0,86-0,99)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	404,6	421,4	0,96 (0,86-1,07)
Uribeko ESI	285,8	328,0	0,87 (0,78-0,97)
Bidasoako ESI	314,1	347,9	0,90 (0,76-1,07)
Debararrenako ESI	378,1	465,9	0,81 (0,69-0,95)
Debagoienako ESI	294,0	289,3	1,02 (0,83-1,24)
Donostialdeako ESI	338,4	348,7	0,97 (0,90-1,05)
Goierrri-Urola Garaiako ESI	427,4	442,0	0,97 (0,84-1,11)
Tolosaldeako ESI	406,0	441,8	0,92 (0,78-1,09)

Gripe-sindromearen tasak behera egin du aste honetan eta 3,1 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (4,1/100.000 aurreko astean).

Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) ere behera egin du aste honetan eta 273,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (294,6/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIaren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 44 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 45,5 baieztatu dira. SARS-CoV-2 bat, gripe-birus bat (B motakoa) eta ABS bat atzeman dira. 7 errinobirus eta 7 metapneumobirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2023-2024, EAE



Hiru arnas-birus nagusien, SARS-CoV-2, gripe-birusa eta ABS, positibotasunak nahiko egonkor daude % 10etik beherako balioetan (% 2,3 hiru kasuetan). Metapneumobirusaren positibotasuna % 15,9koa izan da (% 16,7 aurreko astean), errinobirusarenaren berdina (% 19,4 aurreko astean).

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2023-2024, EAE


	12. astea		11. astea		2023-2024 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	1	2,3	1	2,8	242	17,7
SARS-CoV-2	1	2,3	1	2,8	73	5,3
ABS	1	2,3	0	0,0	91	6,7
Metaneumobirus	7	15,9	6	16,7	86	6,3
Parainfluenza	3	6,8	6	16,7	34	2,5
Adenobirus	2	4,5	0	0,0	33	2,4
Errinobirus	7	15,9	7	19,4	268	19,6
Urtaroko CoV	1	2,3	5	13,9	81	5,9

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorzen direnak. AIAL tasa 13,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (14,1/100.000 aurreko astean), 12,9/100.000 emakumeetan eta 14,0/100.000 gizonetan.

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorako adin-taldean eman da 39,1 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5 urtetik beherako adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 29,6 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute 5-14 eta 64 urtetik gorako adin-taldeetan.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Hiru arnas birus nagusien positibotasuna % 10aren azpitik mantentzen da modu egonkorrean, aste honetan gripe-birusaren positibotasuna % 1,0koa (% 1,4 aurreko astean), SARS-CoV-2arena % 1,9koa (% 1,7 aurreko astean) eta ABSrena % 1,4koa (% 3,2 aurreko astean) izan direlarik. Aste honetan erregistraturiko positibotasun altuenak metapneumobirusarena (% 25,5) eta errinobirusarena (% 16,4) izan dira.

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE

	12. astea		11. astea		2023-2024 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	206	1,9	232	1,7	7026	9,2
Influenza	192	1,0	217	1,4	6618	18,2
ABS	147	1,4	185	3,2	5549	14,2

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 16 SARS-CoV-2, 14 gripe-birus eta 17 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 14 gripe-birusetatik, 6 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, 4 A(H3), A(H1)pdm09 bat eta 3 B motakoak. 2023/40 astetik 6076 detekzio erregistratu dira, 6054 (% 99,6) A motakoak eta 22 (% 0,4) B motakoak. Azpitipatutako A motako 1859 birusetatik, 438 (% 23,6) A(H3) eta 1421 (% 76,4) A(H1)pdm09 izan dira.

Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, otsailean, PCR bidez aztertutako SARS-CoV-2ren lagin positiboen % 33,5 sekuentziatu dira orain arte. Guztiak Omikron aldaerakoak izan dira, leinu ohikoenak JN.1 (% 92,6) eta XDD (% 4,3) izan direlarik.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2023-2024, EAE




COVID-19aren egoera

60 urte edo gehiagoko populazioan, 12. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 1,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (2,3/100.000 aurreko astean); 1,4 gizonetan eta 1,9 emakumeetan.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, aste honetan 7 paziente ospitaleratu dira EAEn COVID-19agatik¹ (11 ospitaleratu aurreko astean), 4 gizon eta 3 emakume. Ospitaleratutako pertsonen % 71,4 60 urtetik gorakoa zen.

COVID-19agatik gertaturiko ospitaleratzeen kopurua eta tasa, aste epidemiologikoen eta adinaren arabera. 2023-2024, EAE



¹ Txostenaren argitaratze datako behin behineko datuak

Urteko 12. astean, 2 COVID-19 kasu berri erregistratu dira EAEko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean (3 aurreko astean). Kasuak dituzten zentro soziosanitario kopurua ere 2 izan da, aurreko astean baino bat gutxiago.

Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2024ko martxoaren 27an

**Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**